

13 urteko ikasleak tesina sardinieraz egin du bere hizkuntza aldarrikatu nahian

KATALUNIAKO VILAWEBEN aurkitu dugu albistea. Riccardo Laconi 13 urte ditu eta tesina aurkezteko garaia iritsia zitzaion. Sardiniako ingurumena zaintzeko moduei, garapen iraunkor-rrari, buruzko lana zeukan prestatuta mutiko gazteak. Alferi de Cagliari eskolan lana italieraz aurkeztu beste erremediorik ez zuen. Tesina aurkezteko garaia iritsita, italieraz egindako galdera denei sardinieraz erantzun zien, eta hori egiteko arrazoia honela eman zuen: “Sardinieraz hitz egin nahi izan nuen, hizkuntza hau ez delako dialektoa. Hizkuntza da, frantsesa eta ingelesa diren bezala. Eta lur honetako kulturarekin eta tradizioarekin du lotura”. Ikaslearen nahia ez zen eremu publikoan sardinieraren erabilera aldarrikatzea soilik, berak adierazi duenez, “harrotasunez eskatu nahi dut eremu



Riccardo Laconi ikasleak sardinieraz egin zuen ikerketa lana, Italiako Sardinian bere hizkuntza defendatzeko.

ofizialetan nire hizkuntzan aritzeko aukera, azterketa batean adibidez, baina nire lagunekin ere sardinieraz hitz egin nahiko nuke egunerokoa”. Ez dirudi Sardiniako erakunde publikoek neurririk hartu dutenik. Vilawebek jakinarazi duenez behintzat, Riccardo Laconi ikasleak puntuaziorik altuena lortu du azterketan.

Bahea

Maren Belastegi Uemako lehendakariak Berrian esanak EAEko administrazioetako euskararen erabileraz:

“Bost erakundetik batek dauka Euskara Plana azken ebaluazioaren arabera. Baina abian jarritako zenbat plan betetzen dira osorik? Zer gertatzen da betetzen ez diren planekin? Zer gertatzen da betetzen ez diren hizkuntza irizpideekin? Ezer ere ez. Eta hortxe dago gakoa. Beste departamentuetako (ingurumena, hirigintza...) planak eta legeak zuzen betetzen ditu administrazioak. Euskararenak, aldiz, ez. Borondateari lotzen zaizkio, eta ez neurri jakin batzuei, gainera, legea bera da sarri urrats berriak egiteko muga.

Administrazioaren orokortasunetik atera eta instituzioen mailaketan murgiltzen bagara, berriz, goi administrazioa begiztatzen da azken lerroan. Baliabide gehien dituzten erakundeak izan arren, euskara gutxien erabiltzen duten erakundeak dira. Eta horrek eremu zabalean du eragin kaltegarria. Baita euskararen arnagune diren udal-erri euskaldunetan ere”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Enpresen itxiera eta odolustea

EUSKAL HERRIAN inoiz ikusi den enpresa itxiera handienaren aurrean gaude, odolustea. Gure herrian izandako birmoldaketa industrialek enpresa publiko handiei eragin zien eta milaka lanpostu deuseztatu zituzten. Baina langileen gehiengoa euren etorkizunaz lasai zegoen, aurre-jubilazioa bermatu zitelako (Babcock & Wilcox-en 45 urtekoak ere bai) edo inolako zailtasunik gabe gaixotasun profesionalak edo ezintasunak onartu zitzaizkielako baja hartzeko. Gaur, aldiz, egoera erabat ezberdina da. Enpresen itxiera eta odolustea sektore guztiei ari da eragiten, baina batez ere enpresa txiki eta ertainei. Milaka dira galdutako enpleguak.

Hedabideek hizpide dituzte eguneroko mobilizazioak: grebak, itxialdiak, manifestazioak, ibilaldiak... Enpresa handi eta ertainetako langileak dira horien protagonista, mobilizatzeko eta antolatze gaitasuna dutelako, sindikatuak eta enpresa batzordeak dituztelako. Badago beste errealitate bat, enpresa txikiak, pertsona bakarrak, bostek edo hogeik lan egiten dute-

na, sindikatu eta batzorde gabe isolatuta daudena. Enpresa horiek tantaka ixten ari dira, baina bertako langileak eta euren familiak baino ez dira horretaz jabetzen. Tokiko merkataritzan zabaldu den alerta gorria da egoera horren erakusgarri.

Odoluste horren atzean kudeaketa eskasa eta konsumorik eza egon daitezke. Baina arrazoi nagusia bankuekin eta finantza entitateekin loturik dago, kredituaren iturria itxita baitaude eta negozio horiek itozten dituzte. Administrazio publikoek industria eta denda txikien desegitea eragozteko plan bat jarri behar-lukete martxan berehala, biztanleria txirotzen ari baita. Plan horrek aurreikusi behar-lituzke, alde bate-tik onura fiskalak izateko neurriak, eta bestetik Kutxa-bank, Laboral-Kutxa, CAN, BBVA eta beste bankuen konpromisoa kreditua errazteko. Krisiaren aurretik enpresa horien kontura “loditu” ziren. Orain kredituaren ordua da.

Juan Mari Arregi

